



GAZTELUGATXEKO DONIENE

Nabarrako herritarren ekhimena

"Bere eskualde batzutan, batez ere Bizkaian eta Araban, gizon eta emakume nafarrak..."

Aymeric Picaud

Gaztelugatxe (gazteluaren haitz edo gaztelu latz edo zail)-aren eraikuntza X mendekoa dugu, eta iturri batzuk segurutzat ematen dute bere eraikuntzaren jatorria Tenplarioa dela, hori bai, Iruñeko Erresumaren barnean. Hau konprobatu dezakegu, Gartzzea III Antsez "Naiara"-koaren erresumaldian zehar egindako 1053 urteko donazioarekin, Nafar tenente Eneko Lupiz eta bere emazte Tota Fortiz izan zirelarik, gaztelu hau, San Joan Peina-ko monasterioari donatu ziotenak. Garai hartako Nafar monasterio nagusia zen, eta Erresumako Ekialdeko partean kokatua zegoen, zehazki Aragoa Garaian.

Euskal Erresumako beste leku batzuk bezala, zehazkiago Durangaldea bezala, Busturialdea Gaztelauek 1199 eta 1200 urteen artean okupatu zuten, eta horrekin batera Gaztelugatxe. Itsasoa bigilatu eta kontrolatzeko balio zuen posizio estrategiko honetara, erretiratu zen Bizkaiko Jaun Joan Nuñez Larakoa, zaldun batzuekin eta bere osteekin batera. Azken hauen artean agertzen ziren Bermeotar Joan Mendotza-koa eta Martin Aroztegi-koa, Gaztelar Errege Alfonso XI ren eraso bortitzaren aurrean, bere intsurrekzioaren ondoren.

Euskaldun ausart hauek, Gaztelako armadaren erasoak erresistitu zituzten hilabete bat baino gehiegotan zehar, eta honek behartu zuen Espainol Erregea erretiratzerara, bere armada gerrarako prest utziz. Baina setiatuen seriotasun eta ausardiak, Espainol tropak erretiratze definitibora behartu zituen, hilabete berantago. 1334 urtea zen, eta Gaztelugatxe-k idatzi zuen horrela, bere gerra orrialde bikainena.

1593 urtean, Gaztelugatxek kortsari Francis Drake-n atakea sufritu zuen, barruti guztia sakeatua izan zelarik, non jadanik kokatua zen ermita ttiki bat. Urtebete berantago, Espainiako Erresuma eta Frantziako Erresumaren arteko gerraren kontestuan, 14 ontzi Hugenot-ek, Arroxela-tik etorriak, Izaro Irla, asaltatu, sakeatu eta hari su eman ondoren, Gaztelugatxera joan ziren, haitzaren santuarioan aurkitu zuten guztia lapurtuz, eta ondoren, bertan aurkitu zuten ermitaua amilduz.

XVIII mendean Ingelesek asaltatu eta su eman zioten, Espainiako suzesio gerretan zehar. Espainiako Gerra Zibilean, ontzi errepublikarrek, bere uretan barna Espainiako II Errepublikako sublebatuei aurre egin zieten. Gaztelugatxetik konprobatu ahal izan zen Nabarra Bou-aren barnean zihoazen gudarien ausardia, zeinek aurre egin bait zioten sublebatuen gerra-ontzi Canarias boteretsuari. Gudari hauek aurre egin zioten, eta borroka egin zuten, etsaiak hondoratu zituen arte.

Baina Gaztelugatxe-k historia gehiago du. Beraien artean trafikante ttikiena, piratena, borroketa, eta ekaitzek eragindako naufragio ugariena. Gaztelua ordezkatu zuen Santuarioari askotan eman diote su, motibo ugariengatik. Su hartu zuen azken aldia, 1978 ko Azaroan izan zen, ermita guztiz suntsitu zelarik. 1980 urtean, berriz ere ireki zuten erromes eta bisitarientzat. Funtzio defentsiboarekin hasi zen enklabe honi erantsi zitzaizkion mistizismoa eta libertatearen defentsa.

Horregatik gaude gaur hemen, gure iraganaren parte bat gogoratzeko, orainetik noblezia eta errespetuz begiratzen diogun iragana, etorkizun hurbilera bideratuz. Etorkizun honekin errekeratuko dugu Baskoi independenteak errepresentatu zituen estatuaren soberanitatea, ez dena besterik Nafarroa baizik.

Nabarrako banderaren altxatzea
2008ko Martxoaren 29an
Donibane Gaztelugatxen 12:30etan